| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO URTARRILAREN 16AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 16 DE ENERO DE 2018.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Keltse Eiguren Alberdi And.
Joseba Arregui Martínez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI DIHARDUENA** | **SECRETARIA ACCTAL** |

Leire Sologaistua Goitia, and.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazortziko urtarrilaren hamaseian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile diharduena, Cristina Orbezua González andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a dieciséis de enero de dos mil dieciocho, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora Acctal. , doña Cristina Orbezua González.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**8.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO URTARRILAREN 9AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2018ko urtarrilaren 9ko bilerakoa, hain zuzen.

**8.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 9 DE ENERO DE 2018.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 9 de enero de 2018.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**9.- GOIENETXE ETA SARATSAGA ESTRATETAKO ETA LOS CHOPOS ETORBIDEKO SANEAMENDUKO UDAL SARE BEREIZLEA HOBETZEKO PROIEKTUAN JASOTAKO OBREN ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA ONESTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: GOIENETXE ETA SARATXAGA KALEEN ETA MAKALETA ETORBIDEAREN ARTEKO ESTRATAK BANATZEN DITUEN SANEAMENDU-SAREA HOBETZEKO OBREN zuzendaritzak aurkeztu dituen 5. – behin betiko ziurtagiria eta zerrenda baloratua onetsiko dira (28.923 euro). “LUKATEGI GUNIKER, S.L.” izeneko sozietateari (IFK: B95464061) adjudikatu zitzaizkion, Tokiko Gobernu Batzarraren 2016-11-29ko 456. erabakiz. Gastua udalaren aurrekontuaren pentzutan egingo da.

**9.- APROBACIÓN DE LA CERTIFICACIÓN LIQUIDACIÓN DE LAS OBRAS DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO SEPARATIVA DE ESTRADA GOIENETXE Y SARATXAGA Y AVDA. LOS CHOPOS.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la 5ª certificación-final y relación valorada que por importe de 28.923 euros, presenta la Dirección de Obra correspondiente a las comprendidas en el proyecto de OBRA DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO SEPARATIVA DE ESTRADAS GOIENETXE Y SARATXAGA Y AVDA. LOS CHOPOS, las cuales fueron adjudicadas a la razón social “LUKATEGI GUNIKER, S.L.”, con C.I.F.: B95464061, por Por Acuerdo nº456 adoptado por la Junta de Gobierno Local en sesión de fecha 29/11/2016, imputándose el gasto a cargo del Presupuesto Municipal.

BIGARRENA: Gehiegizko aurrekontua onartzea (16.666,99 euro), gehiegizko neurketa batetik sortutakoa, eta zenbateko bereko gastua xedatzea.

Ez da beharrezkoa beste gastu bat baimentzea, ikusita aipatutako gehiegizkoa bere garaian gordetako aurrekontuaren zenbatekoaren zatiarekin betetzen dela; eta hura ez zen erabili lizitazio-zenbatekoaren eta adjudikazio-zenbatekoaren arteko beheranzko aldeagatik.

SEGUNDO: Aprobar el exceso de presupuesto, cifrado en 16.666,99 euros, y disponer el gasto por igual importe, derivado de un exceso de medición.

No resulta necesario autorizar nuevo gasto dado que el exceso mencionado queda cubierto por la parte de la cuantía presupuestaria en su día reservada y que no fue empleada debido a la diferencia a la baja entre el importe de licitación y el importe de adjudicación.

**10.- UDAL-INFORMAZIO SISTEMAREN SEGURTASUN INTEGRALA BERRIZTATZEA ADJUDIKATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA.- NEXTEL, S.A. izeneko sozietateari, A-48277404 IFK, adjudikatuko zaio UDALAREN INFORMAZIO-SISTEMAREN SEGURTASUN INTEGRALA BERRIZTATZEA, 149.800 eurotan, gehi 31.458 € BEZaren kontzeptupean (% 21), guztira 181.258 eurotan.

Kontratuak 3 URTE iraungo du, harrera-akta sinatzen denetik aurrera zenbatuta, elementu guztien instalazioa amaitzen denean eta funtzionatzen jartzen direnean. Kontratua ezingo da luzatu.

BIGARRENA.- Adjudikaziodunak, Sektore publikoko kontratuen legearen testu bateginaren 156.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, Kontratazio Zerbitzuko bulegoetara jo beharko du (Foru kalea, 8), kontratua administrazio-agirian formalizatzeko,

**10.- ADJUDICACIÓN DE LA RENOVACIÓN DE LA SEGURIDAD INTEGRAL DEL SISTEMA DE INFORMACIÓN MUNICIPAL.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO.- Adjudicar a la razón social NEXTEL, S. A. con CIF: A-48277404, la RENOVACIÓN DE LA SEGURIDAD INTEGRAL DEL SISTEMA DE INFORMACIÓN MUNICIPAL, por importe de 149.800€, más 31.458€ en concepto de IVA (21%), sumando un total de 181.258€.

La duración del contrato será de 3 AÑOS, a contar desde la firma del Acta de recepción, cuando finalice la instalación y puesta en funcionamiento de todos los elementos. Dicho contrato no es susceptible de prórrogas.

SEGUNDO.- El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo

erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik hamabost egun balioduneko gehieneko epean.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea NEXTEL, S.A. izeneko sozietateari; halaber, enpresa horri helaraztea Getxoko Udaleko telekomunikazioen ingeniariak 2017-11-17an egindako txostena, AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI buruzkoa.

**11.- GETXOKO UDALERRIKO DINAMIZAZIO EKONOMIKORAKO DIRU-LAGUNTZAK 2018 URTERAKO EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ONESTEA.**

Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloko zinegotzi arduradunak, honako hau erabaki da:

1º) Getxo udalerriaren dinamizazio ekonomikorako 4 lerrotako diru-laguntzen oinarriak, eta 1., 2., 3. eta 4. lerroko deialdiak onestea, 2018. urterako.

2º) 220.000 euro (berrehun eta hogei mila euro) baimentzea eman beharreko 4 lerrotako diru-laguntzei aurre egiteko.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, ETA INGURUMENA**

**12.- GOBELA KALEKO 8. ETA 10. ZENBAKIETAN ETA NOBIA SALCEDO KALEKO 5., 7., 9., 11. ETA 13. ZENBAKIETAN DAUDEN HIGIEZINETAKO URBANIZAZIO PRIBATUAREN PATIOAK**

máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

TERCERA.- Notificar la presente resolución a la razón social NEXTEL, S.A. y dar traslado a la misma del informe de fecha 17/11/2017 emitido por el Ingeniero de telecomunicaciones del Ayuntamiento de Getxo sobre los CRITERIOS NO EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA.

**11.- APROBACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA DINAMIZACIÓN ECONÓMICA DEL MUNICIPIO DE GETXO, AÑO 2018.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, se acordó:

1º) Aprobar las Bases de las líneas 1 a 4, y las Convocatorias de las líneas 1 a 4 de las subvenciones para la dinamización económica del municipio de Getxo, año 2018.

2º) Autorizar un importe de 220.000 € (doscientos veinte mil euros) para hacer frente a las subvenciones a conceder en las líneas 1 a 4.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, Y MEDIO AMBIENTE**

**12.- CONCESIÓN DE PRÓRROGA PARA LA PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN Y REPOSICIÓN DEL PAVIMENTO CORRESPONDIENTE A LA LICENCIA DE OBRAS CONCEDIDA**

**BIRGAITZEKO XEDEZ EMANDAKO OBRA-LIZENTZIARI DAGOKION ZOLADURA BIRJARTZEKO ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA ONESTEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta eta alkatearen abstentzioarekin, jabeen erkidegoko presidentea izateagatik, hauxe erabaki zen:

LEHENENGOA: ATARIA 2006 SLPri, GOBELA 8-10ko eta NOVIA SALCEDO 5 - 13ko jabe erkidegoaren ordez, hiru hilabeteko luzapena emango zaio obrako amaierako dokumentazioa aurkezteko eta zorua Udaleko Azpiegitura eta Zerbitzu Sailak adierazten dituen baldintzetan birjartzeko, Tokiko Gobernu Batzarrak 110. Erabakiaren bidez (2012ko martxoaren 20an egindako bilkura arruntean) baimendutako obrak direla-eta.

BIGARRENA: Erabaki hau nahiz haren aurka jarri daitezkeen errekurtsoak eskatzaileari helaraztea, ondorio egokiak izan ditzan.

**PARA LA REHABILITACIÓN DE PATIOS DE LA URBANIZACIÓN PRIVADA DE LOS INMUEBLES SITOS EN C/GOBELA, 8 Y 10 Y C/ NOVIA SALCEDO, 5, 7, 9, 11 Y 13.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó, con la abstención del Alcalde por ser presidente de la comunidad de vecinos:

PRIMERO: Conceder a ATARIA 2006 SLP E/R CCPP GOBELA 8-10 Y NOVIA SALCEDO 5 A 13, una prórroga de tres meses para la presentación de la documentación final de obra y para la reposición del pavimento en las condiciones indicadas por el Departamento de Infraestructura y Servicios Municipal, relativas a las obras autorizadas mediante Acuerdo nº 110 de la Junta de Gobierno local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el 20 de marzo de 2012.

SEGUNDO: Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

**13.- OBRA-LIZENTZIA EMATEA, PAULINO MENDIBIL KALEKO 7. ZENBAKIKO LOKALA BIRGAITZEKO ETA "HORTZ-KLINIKA ETA ERREHABILITAZIOA" JARDUERARAKO ERABILTZEKO.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

I.

**13.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA REFORMA DEL LOCAL SITO EN LA C/PAULINO MENDIVIL, 7 PARA DESTINARLO A UNA ACTIVIDAD DE "CLÍNICA DENTAL Y REHABILITACIÓN".**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

I.

LEHENENGOA: José Luis Picaza Gorostiza jaunari, SOCIEDAD INMOBILIARIA DEL IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. enpresaren ordezkaritzan, eskatu duen obra lizentzia emango zaio, Areetako Paulino Mendivil 7ko lokala berriztatzeko, "hortzetako eta birgaikuntzako klinikako" jarduera egiteko bertan. Hori guztia, aurkeztutako oinarrizko eta egikaritzeko proiektuarekin bat etorriz, arkitektoa den Luis Domínguez Viñuales jaunak sinatua eta EHAEOak 2017-10-11n ikus-onetsia. Idazkian eskatutakoa guztiz bete behar du, baita ondoko baldintza hauek ere:

PRIMERO: Conceder a D. José Luis Picaza Gorostiza, en representación de la mercantil SOCIEDAD INMOBILIARIA DEL IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. la licencia de obras solicitada para la reforma del local sito en la calle Paulino Mendivil nº 7, de Las Arenas, para destinarlo a una actividad de "Clínica Dental y de Rehabilitación". Todo ello de acuerdo con el proyecto básico y de ejecución presentado, firmado por el Arquitecto D. Luis Domínguez Viñuales y visado por el COAVN en fecha 11.10.2017, debiendo ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito y a las condiciones que se indican a continuación:

- Baldin eta enpresa batek baino gehiagok hartzen badute parte obren burutzapenean, edo enpresa eta langile autonomoek edo hainbat langile autonomok, lanei ekin baino lehen edo inguruabar horren berri izan eta berehala, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du sustatzaileak obrak iraun bitartean.

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

- Obrek iraun bitartean, indarreko segurtasun neurriak hartu beharko dituzte, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

- Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, en evitación de daños a terceros.

- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, honako epe hauek ezarriko dira:

- Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/ 2006, de 30 de Junio del Gobierno Vasco, sobre Suelo y Urbanismo, se establecen los siguientes plazos:

a) Hilabeteko epea dago obrak hasteko, obra lizentzia jasotzen denetik zenbatzen hasita.
b) Lanak egiteko hiru hilabeteko epea finkatu da.
c) Gehienez ere, obren egikaritzea

a) El plazo de inicio de las obras será de 1 mes, contado a partir de la recepción de la licencia de obras.
b) Se establece un plazo para la ejecución de los trabajos de 3 meses.
c) El período máximo que podrá

hilabetez egon ahal izango da geldirik sustatzaileri egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de 1 mes.

BIGARRENA: Berrikuntza lanak amaituta, eta lokala ireki eta jarduera martxan jarri aurretik, sustatzaileak edo ordezkariak sinatutako "aurretiazko jakinarazpena" aurkeztu beharko du, "erantzukizunpeko aitorpenarekin", honako dokumentazio honekin batera:

- Obrako ziurtagiria eta azken likidazioa, behin betiko planoekin (beharrezkoak badira), teknikari eskudun batek sinatuta.

SEGUNDO: Una vez terminadas las obras de reforma y previamente a la apertura del local y puesta en funcionamiento de la actividad, deberá presentar una "Comunicación Previa" o "Declaración de Responsabilidad" firmada por el promotor o representante, junto con la siguiente documentación:

- Certificado y Liquidación final de obra, con los Planos definitivos (si fueran necesarios), firmados por Técnico competente.

HIRUGARRENA: Berariaz agerraraztea baimenak eta lizentziak jabetza-eskubiderik barik eta hirugarrenei kalterik egin gabe emango direla. (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 211.2. artikulua).

TERCERO: Hacer constar expresamente que las autorizaciones y licencias se entenderán otorgadas salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros. (art 211.2 Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo).

II. Erabaki hau nahiz haren aurka jarri daitezkeen errekurtsoak eskatzaileari helaraztea, ondorio egokiak izan ditzan.

II. Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

III. Ekonomia Arloak lizentzia honi dagozkion eskubideak igorriko ditu. Obren egikaritze materialaren aurrekontu osoa 235.383,76 euro da. Jarduera horretarako lokalean eraikitako azalera 338,36 m²-koa da, gutxi gorabehera.

III. Por el Área Económica se girarán los derechos correspondientes a la presente licencia. El presupuesto total de ejecución material de las obras asciende a la cantidad de 235.383,76 €. La superficie construída del local que ocupa la actividad es de aproximadamente 338,36 m².

**14.- OBRA-LIZENTZIA EMATEA, OLLARRETXE KALEKO 41-A LOKALA ERABERRITZEKO ETA ETXEBIZITZA BIHURTZEKO.**

**14.- CONCESIÓN DE LICENCIA PARA OBRAS DE REFORMA DEL LOCAL SITO EN LA C/OLLARRETXE, 41 A, PARA SU TRANSFORMACIÓN EN VIVIENDA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA.-
I.- ALBERTO SARRIA BILBAO jaunari lizentzia ematea Getxoko Ollarretxe 41 Ako lokalean eraberritze-obrak egiteko, lokala etxebizitza bihurtzeko helburuarekin, aurkeztutako proiektuaren arabera. Proiektu hori ARQUILUR3, S.L.P.k idatzi du eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2017ko abuztuaren 29an ikus-onetsi du. Bestalde, idazkian eskatutakoa zehatz bete beharko du, baita baldintza hauek ere:

- Baldin eta enpresa batek baino gehiagok hartzen badute parte obren burutzapenean, edo enpresa eta langile autonomoek edo hainbat langile autonomok, lanei ekin baino lehen edo inguruabar horren berri izan eta berehala, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du sustatzaileak obrak iraun bitartean.

- Obrek iraun bitartean, indarreko segurtasun neurriak hartu beharko dituzte, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

- Bereziki gogorarazten da aurkeztu diren planoak, udalak onetsitakoak, zehatz bete behar direla eraikuntza egitean. Ondorio horietarako, Udaleko Zerbitzu Teknikoek noizean behin berrikuspenak egingo dituzte, obrek dirauten bitartean.

- Edozein aldaketa obrak egin aurretik eskatu beharko da, eta lanak ezingo

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.-
I.- Conceder a D. ALBERTO SARRIA BILBAO, licencia para efectuar obras de reforma del local sito en la calle Ollarretxe nº41A, de Getxo, dirigidas a su transformación en vivienda, de acuerdo con el Proyecto de Ejecución presentado, redactado por ARQUILUR3, S.L.P. y visado por el COAVN con fecha 29 de agosto de 2017, debiendo ajustarse enteramente a lo indicado en su escrito y a las siguientes condiciones:

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

- Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, en evitación de daños a terceros.

- Se recuerda especialmente la obligación de ejecutar la construcción ajustándose enteramente a los planos presentados y aprobados por el Ayuntamiento. A este efecto se podrán realizar por los Servicios Técnicos Municipales revisiones periódicas en el transcurso de las obras.

- - Todo tipo de modificación se solicitará previamente a la ejecución de

dira hasi udalaren baimenik gabe.

las obras, no pudiéndose comenzar éstas sin el correspondiente permiso municipal.

- Etxebizitza berria eraikuntzan txertatzeko, fatxadako akaberak eraikinaren jatorrizko fatxadaren diseinu-irizpide berberarekin egin behar da. Material berdinak edo antzekoak erabili behar dira.

- Con el fin de integrar la nueva vivienda en el conjunto de la edificación, los acabados de la fachada deberán realizarse con el mismo criterio de diseño que tiene la fachada original del edificio, y empleando los mismos materiales o similares.

- Eskubideak ordaintzearekin batera, eta obrak hasi aurretik, 1.724,39 euro jarri beharko dira Udal Gordailuzaintzaren zainpean edo, bestela, banku-abala egin zenbateko horretan, ezarritako baldintzak zorrotz beteko direla bermatzeko.

- Simultáneamente al pago de los derechos, y antes de iniciarse las obras deberá consignar en la Depositaría Municipal, o prestar aval bancario por importe de 1.724,39 €. que afectará en garantía para responder del estricto cumplimiento de las condiciones que se le imponen.

Bestalde, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa eta produkzioa arautzen dituen 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua betez, 235,98 euroko fidantza ordaindu beharko da, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak modu egokian kudeatuko direla bermatze aldera.

Así mismo, en cumplimiento del art. 5 del decreto112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, deberá constituirse fianza por importe de 235,98 € para garantizar la adecuada gestión de los residuos de construcción y demolición.

II. Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz,

II. Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/2006 de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo,

- Obrak, gehienez ere, lizentzia hau onartzearen jakinarazpena jaso eta hilabete beranduago hasiko dira.

- Las obras se iniciarán como máximo 1 mes después del recibo de la comunicación del otorgamiento de esta licencia.

- Obra hauek egiteko epea ezin da izan 4 hilabete baino luzeagoa.

- El plazo para la ejecución de estas obras se estima no podrá ser superior a 4 Meses.

- Obrak gehienez 2 hilabetean eten ahal izango dira, sustatzaileari bakarrik egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla

- El periodo máximo en que puede estar interrumpida la ejecución de las obras por causa imputable al promotor será

medio.

Epeak igaro eta obrak hasi edo amaitu ez badira, edo sustatzaileari dagozkion arrazoiengatik eten badira luzapenik eman gabe, udalak lizentzia iraungi dela adieraziko du, administrazio-prozedura burutu eta interesdunari entzunaldia egin ostean, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

III. Obrak bukatutakoan lehen erabilerako lizentzia eskatu behar du. Eskaerarekin batera, obren likidazioa eta azken ziurtagiria aurkeztu behar ditu, teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita. Argazkiak ere, koloretan, ikuspegi guztietatik eginak, aurkeztu behar ditu.

Dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko da eraikuntza eta eraispen material eta hondakinak kudeatzeko azken txostena, 112/2012 Dekretuko III. eranskinean eta 6. artikuluan adierazitako eduki eta irismenarekin, baita energia-eraginkortasunaren ziurtagiria ere, eskuratutako kalifikazio globalarekin.

Etxebizitzak eta gainerako lokalak ezingo dira inola erabili, udalak lehen erabilerako lizentzia eman arte.

Betebehar hori bete ezean, eraikuntza-lizentziaren titularra izango da erantzule.

IV.- Berariaz jasota geratzen da lizentziak jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari

de 2 meses.

Transcurridos los plazos en los que la obra no se hubiese iniciado o no hubiese finalizado, o estuviera interrumpida por causa imputable al promotor, sin que se haya otorgado una prórroga, el ayuntamiento declarará, previo procedimiento administrativo con audiencia al interesado, la caducidad de la licencia, sin derecho a indemnización alguna.

III. Al finalizar las obras deberán de solicitar la correspondiente licencia de primera utilización aportando liquidación y certificado final de las obras suscritos por los técnicos competentes y visados por los Colegios Profesionales correspondientes y fotografías a color desde todos los puntos de vista.

Deberá de acompañar a esta documentación, el informe final de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición con el contenido y alcance que se señala en el art. 6 y en el anexo III del decreto112/2012, así como el Certificado de Eficiencia Energética con la calificación global obtenida.

En ningún caso se podrán utilizar las viviendas y demás locales, sin tener concedido el Ayuntamiento la licencia de primera utilización.

Será responsable del incumplimiento de esta obligación el titular de la licencia de construcción.

IV.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a

buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan ezarritakoa betez.

salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

V.- Interesdunei ebazpenaren berri emango zaie, eta jar ditzaketen errekurtsoak adieraziko zaizkie.

V.- Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, kontuan izanik obra horiei dagokien egikaritze materialeko aurrekontua 34.487,72 eurokoa dela.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el presupuesto de ejecución material presentado correspondiente a dichas obras asciende a la cantidad de 34.487,72 €.

**15.- OBRA-LIZENTZIA EMATEA, OLLARRETXE KALEKO 37. ZENBAKIKO ETA PIÑABEKO KALEKO 4. ZENBAKIKO LOKALA ERABERRITU ETA BI ETXEBIZITZA BIHURTZEKO.**

**15.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA REFORMA DEL LOCAL SITO EN LA C/OLLARRETXE, 37 Y PIÑABEKO, 4, PARA SU TRANSFORMACIÓN EN DOS VIVIENDAS.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-
I.- LOURDES VERGARA OLALDE andreari lizentzia ematea Getxoko Ollarretxe 37ko eta Piñabeko 4ko lokalean eraberritze-obrak egiteko, lokala 2 etxebizitza bihurtzeko helburuarekin, aurkeztutako proiektuaren arabera. Proiektu hori ARQ M47, S.L.P.k idatzi du eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2017ko uztailaren 11n ikus-onetsi du. Bestalde, idazkian eskatutakoa zehatz bete beharko du, baita baldintza hauek ere:
- Baldin eta enpresa batek baino gehiagok hartzen badute parte obren burutzapenean, edo enpresa eta langile autonomoek edo hainbat langile autonomok, lanei ekin baino lehen edo

PRIMERO.-
I.- Conceder a DÑA. LOURDES VERGARA OLALDE, licencia para efectuar obras de reforma del local sito en la calle Ollarretxe nº37 y Piñabeko nº4, de Getxo, dirigidas a su transformación en 2 viviendas, de acuerdo con el Proyecto de Ejecución presentado, redactado por ARQ M47, S.L.P. y visado por el COAVN con fecha 11 de julio de 2017, debiendo ajustarse enteramente a lo indicado en su escrito y a las siguientes condiciones:
- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los

inguruabar horren berri izan eta berehala, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du sustatzaileak obrak iraun bitartean.

trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

- Obrek iraun bitartean, indarreko segurtasun neurriak hartu beharko dituzte, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

- Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, en evitación de daños a terceros.

- Bereziki gogorarazten da aurkeztu diren planoak, udalak onetsitakoak, zehatz bete behar direla eraikuntza egitean. Ondorio horietarako, Udaleko Zerbitzu Teknikoek noizean behin berrikuspenak egingo dituzte, obrek dirauten bitartean.

- Se recuerda especialmente la obligación de ejecutar la construcción ajustándose enteramente a los planos presentados y aprobados por el Ayuntamiento. A este efecto se podrán realizar por los Servicios Técnicos Municipales revisiones periódicas en el transcurso de las obras.

- Edozein aldaketa obrak egin aurretik eskatu beharko da, eta lanak ezingo dira hasi udalaren baimenik gabe.

- - Todo tipo de modificación se solicitará previamente a la ejecución de las obras, no pudiéndose comenzar éstas sin el correspondiente permiso municipal.

- Etxebizitza berria eraikuntzan txertatzeko, fatxadako akaberak eraikinaren jatorrizko fatxadaren diseinu-irizpide berberarekin egin behar da. Material berdinak edo antzekoak erabili behar dira.

- Con el fin de integrar la nueva vivienda en el conjunto de la edificación, los acabados de la fachada deberán realizarse con el mismo criterio de diseño que tiene la fachada original del edificio, y empleando los mismos materiales o similares.

- Eskubideak ordaintzearekin batera, eta obrak hasi aurretik, 2.175,99 euro jarri beharko dira Udal Gordailuzaintzaren zainpean edo, bestela, banku-abala egin zenbateko horretan, ezarritako baldintzak zorrotz beteko direla bermatzeko.

- Simultáneamente al pago de los derechos, y antes de iniciarse las obras deberá consignar en la Depositaría Municipal, o prestar aval bancario por importe de 2.175,99 €. que afectará en garantía para responder del estricto cumplimiento de las condiciones que se le imponen.

Bestalde, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa eta produkzioa arautzen dituen 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua betez, 1.000 euroko fidantza ordaindu beharko da, eraikuntza- eta

Así mismo, en cumplimiento del art. 5 del decreto112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, deberá constituirse fianza por importe

eraispen-hondakinak modu egokian kudeatuko direla bermatze aldera.

de 1.000 € para garantizar la adecuada gestión de los residuos de construcción y demolición.

II. Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz,

II. Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/2006 de 30 de junio del Gobierno Vasco sobre Suelo y Urbanismo,

- Obrak, gehienez ere, lizentzia hau onartzearen jakinarazpena jaso eta hilabete beranduago hasiko dira.

- Las obras se iniciarán como máximo 1 mes después del recibo de la comunicación del otorgamiento de esta licencia.

- Obra hauek egiteko epea ezin da izan 4 hilabete baino luzeagoa.

- El plazo para la ejecución de estas obras se estima no podrá ser superior a 4 Meses.

- Obrak gehienez 2 hilabetean eten ahal izango dira, sustatzaileari bakarrik egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio.

- El periodo máximo en que puede estar interrumpida la ejecución de las obras por causa imputable al promotor será de 2 meses.

Epeak igaro eta obrak hasi edo amaitu ez badira, edo sustatzaileari dagozkion arrazoiengatik eten badira luzapenik eman gabe, udalak lizentzia iraungi dela adieraziko du, administrazio-prozedura burutu eta interesdunari entzunaldia egin ostean, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Transcurridos los plazos en los que la obra no se hubiese iniciado o no hubiese finalizado, o estuviera interrumpida por causa imputable al promotor, sin que se haya otorgado una prórroga, el ayuntamiento declarará, previo procedimiento administrativo con audiencia al interesado, la caducidad de la licencia, sin derecho a indemnización alguna.

III. Obrak bukatutakoan lehen erabilerako lizentzia eskatu behar du. Eskaerarekin batera, obren likidazioa eta azken ziurtagiria aurkeztu behar ditu, teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita. Argazkiak ere, koloretan, ikuspegi guztietatik eginak, aurkeztu behar ditu.

III. Al finalizar las obras deberán de solicitar la correspondiente licencia de primera utilización aportando liquidación y certificado final de las obras suscritos por los técnicos competentes y visados por los Colegios Profesionales correspondientes y fotografías a color desde todos los puntos de vista.

Dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko da eraikuntza eta eraispen material eta hondakinak kudeatzeko

Deberá de acompañar a esta documentación, el informe final de la gestión de residuos y materiales de

azken txostena, 112/2012 Dekretuko III. eranskinean eta 6. artikuluan adierazitako eduki eta irismenarekin, baita energia-eraginkortasunaren ziurtagiria ere, eskuratutako kalifikazio globalarekin.

Etxebizitzak eta gainerako lokalak ezingo dira inola erabili, udalak lehen erabilerako lizentzia eman arte.

Betebehar hori bete ezean, eraikuntza-lizentziaren titularra izango da erantzule.

IV.- Berariaz jasota geratzen da lizentziak jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan ezarritakoa betez.

V.- Interesdunei ebazpenaren berri emango zaie, eta jar ditzaketen errekurtsoak adieraziko zaizkie.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, kontuan izanik obra horiei dagokien egikaritze materialeko aurrekontua 43.519,84 eurokoa dela.

**16.- LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIA EMATEA, MUGARRA KALEKO 20. ZENBAKIKO HIGIEZINEKO FATXADA NAHIZ TEILATUA BERRIZTATZEKO XEDEZ EGINDAKO OBRETARAKO.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau

construcción y demolición con el contenido y alcance que se señala en el art. 6 y en el anexo III del decreto112/2012, así como el Certificado de Eficiencia Energética con la calificación global obtenida.

En ningún caso se podrán utilizar las viviendas y demás locales, sin tener concedido el Ayuntamiento la licencia de primera utilización.

Será responsable del incumplimiento de esta obligación el titular de la licencia de construcción.

IV.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

V.- Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el presupuesto de ejecución material presentado correspondiente a dichas obras asciende a la cantidad de 43.519,84 €.

**16.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REFORMA DE LA FACHADA Y TEJADO REALIZADAS EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/MUGARRA, 20.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se

erabaki da:

LEHENENGOA.- Rubén Álvarez Rubert jaunari, MUGARRA 20ko jabe erkidegoaren ordezkaritzan, obrak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia emango zaio, Getxoko Mugarra kaleko 20.ean dagoen higiezinean fatxada (fatxada aireztatua) eta teilatua berriztatzeko egindako obretarako, aurkeztutako obrako amaierako ziurtagiriarekin bat etorriz, K. Hidalgo Talavera, G. García Grijelmo eta O. Torrontegi Geregiaga arkitektoek idatzita eta EHAEOak 2016-10-18an ikus-onetsita. Hizpide diren obrak Udaleko Gobernu Batzarraren 198. Erabakiz baimendu ziren, 2015eko maiatzaren 19an.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan hartuta obraren azken likidazioa 299.250,85 eurokoa dela.

acordó:

PRIMERO.- Conceder a D. Rubén Álvarez Rubert, en representación de la CCPP MUGARRA 20, licencia de primera utilización de las obras de reforma de la fachada (fachada ventilada) y tejado realizadas en el inmueble sito en la C/ Mugarra nº 20, de Getxo, de acuerdo al certificado final de obra presentado y redactado por las Arquitectas Dña. K. Hidalgo Talavera, Dña. G. García Grijelmo y Dña. O. Torrontegi Geregiaga, visado por el COAVN con fecha 18/10/2016. Dichas obras fueron concedidas por Acuerdo nº 198 de la Junta de Gobierno Local, de fecha 19 de mayo de 2015.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final de obra asciende a la cantidad de 299.250,85€.

**17.- LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIA EMATEA, LOPE DE VEGA KALEKO 8. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKIN KOMUNITARIOAN EGITURA SENDOTZEKO OBRETARAKO.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA.- Pedro María Sainz Cubillo jaunari (RENOVA NORTE, S.L.), LOPE DE VEGA 8ko jabe erkidegoaren ordezkaritzan, lehen erabilerako lizentzia emango zaio, Romoko Lope de Vega kaleko 8.eko eraikin komunitarioaren egitura indartzeko obretarako, aurkeztutako

**17.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REFUERZO ESTRUCTURAL DEL EDIFICIO COMUNITARIO SITO EN LA C/LOPE DE VEGA, 8**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- Conceder a D. Pedro María Sainz Cubillo (RENOVA NORTE, S.L.), en representación de la CCPP LOPE DE VEGA 8, licencia de primera utilización de las obras de refuerzo estructural del edificio comunitario sito en la C/ Lope de Vega nº 8, de Romo, de acuerdo el Certificado Final de obra presentado,

obren azken ziurtagiriaren arabera, Toño Mtz-Jorquera García arkitektoak idatzia eta EHAEOak 2017-11-28an ikus-onetsia.

redactado por el Arquitecto D. Toño Mtz-Jorquera García, visado por el COAVN con fecha 28/11/2017.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan hartuta obraren azken likidazioa 45.773,88 eurokoa dela.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final de obra asciende a la cantidad de 45.773,88€.

**18.- LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIA EMATEA, NEGURI ETORBIDEKO 15. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINEKO 3. ESKUINEKO ETXEBIZITZA BANATZEKO ETA BERTAN HIRU ETXEBIZITZA EGITEKO OBRETARAKO.**

**18.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE DIVISIÓN DE LA VIVIENDA 3ª DCHA. DEL EDIFICIO SITO EN LA AVDA. NEGURI, 15, PARA SU TRANSFORMACIÓN EN 3 VIVIENDAS.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-
I. ARANTZA RUIZ DE VELASCO ARTAZA andreari, MARIA CAPÓN VICENT andrearen ordezkaritzan, lehen erabilerako lizentzia emango zaio, Neguriko etorbideko 15.eko eraikineko 3. eskuineko etxebizitza zatitzeko obretarako, 3 etxebizitza bihurtzeko, aurkeztutako obrako amaierako dokumentazioaren arabera, EHAEOak 2017-12-14an ikus-onetsita, eta Udal Zerbitzu Teknikoek 2018-01-10ean egin zuten aldeko txosten teknikoaren arabera.

PRIMERO.-
I. Conceder a DÑA. ARANTZA RUIZ DE VELASCO ARTAZA en representación de DÑA. MARIA CAPÓN VICENT, licencia de primera utilización para las obras de división de la vivienda 3ª dcha del edificio sito en la Avda. Neguri, 15, para su transformación en 3 viviendas, de acuerdo con la documentación final de obra presentada, visada por el COAVN el 14/12/2017, así como del informe técnico favorable emitido por los Servicios Técnicos Municipales, de fecha 10.01.18.

II. Berariaz agerrarazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan aurreikusitakoa betez, lizentziak

II. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a

jabetza-eskubiderik barik eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla.

salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik azken likidazioa 170.680,16 eurokoa dela.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final presentada asciende a 170.680,16 €

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri emango zaio Udaleko Estatistikari, ondorioak izan ditzan.

TERCERO: Dar traslado de la presente resolución a Estadística Municipal, a los efectos oportunos.

Gai-zerrendaz kanpo, larrialdiko deklarazioa aurrez eginda, beraz, "quorum" zegoela erabakita, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 51. artikuluan aurreikusi bezala, ondorengo erabakiak sartu dira:

Fuera del Orden del Día, previa declaración de urgencia, y por lo tanto, con el "quorum" prevenido en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril, se acordó incluir los siguientes acuerdos:

**19.- EL PINAR KALEKO 8. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINEAN IGOGAILU BAT ORDEZTEKO OBREN LUZAPENA EMATEA EMATEA.**

**19.- CONCESIÓN DE PRÓRROGA PARA LA REALIZACIÓN DE LAS OBRAS DE SUSTITUCIÓN DE ASCENSOR EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/EL PINAR, 8**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- Igor Bilbao Varona jaunari, EL PINAR 8ko jabe erkidegoaren ordezkaritzan, sei hilabeteko luzapena emango zaio, dagoen eraikina ordezteko obrak egiteko, higiezineko sotoko solairuan eta azken solairuan bi geraleku berri eginez. Obra horiek egiteko baimena Tokiko Gobernu Batzarraren 390. Erabakiaren bidez eman zen, 2016ko urriaren 18ko bilkura arruntean hartua.

PRIMERO.- Conceder a D. Igor Bilbao Varona, en representación de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS EL PINAR, 8, una prórroga de seis meses para la realización de las obras de sustitución del ascensor existente con la realización de dos paradas nuevas en la planta de sótano y última planta del inmueble, obras que fueron autorizadas por Acuerdo nº 390 de la Junta de Gobierno Local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el 18 de octubre de 2016.

BIGARRENA.- Erabaki honen eta beraren aurka egin daitezkeen errekurtsoen berri emango zaio eskatzaileari, ondorio egokietarako.

SEGUNDO.- Dara traslado del presente Acuerdo, así como de los recursos que procedean contra el mismo, al solicitante a los efectos oportunos.

**20.- LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIA EMATEA, AMEZTI KALEKO 5. ZENBAKIAN DAGOEN HIGIEZINAREN PATIOKO FATXADAN KANPO-ISOLAMENDUA JARTZEKO OBRETARAKO.**

**20.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE COLOCACIÓN DE AISLAMIENTO EXTERIOR EN LA FACHADA DEL PATIO DEL INMUEBLE SITO EN LA C/AMEZTI, 5.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-
I.- Jon Sarria Mesanza jaunari lehen erabilerako lizentzia ematea, higiezin horretako patioko fatxadan kanpo-isolamendua (SATE) jartzeko obretarako. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 426. Erabakiaren bidez baimendu ziren. Hori guztia aurkeztutako dokumentazioa eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2017-12-18an egindako txostena ikusita.

PRIMERO.-
I.- Conceder a D. Jon Sarria Mesanza licencia de primera utilización para las obras ejecutadas de colocación de aislamiento por el exterior (S.A.T.E.) en la fachada del patio de dicho inmueble, obras que fueron autorizadas mediante Acuerdo de Junta de Gobierno Local nº 426. Todo ello a la vista de la documentación presentada y el informe favorable emitido por los Servicios Técnicos Municipales de fecha 18/12/2017.

II.- Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluak ezarritakoa betez, espresuki jasotzen da lizentziak emango direla, jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe.

II.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik azken likidazioa 19.482,50 eurokoa dela.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final presentada asciende a 19.482,50 euros.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatziak eta hamar minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y diez minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.